

“Urbasa eta zinea lotu egin izan ditut nik beti”

KULTURA PATXI LARRION, IDAZLEA

Testua: Aitziber Aranburuzabala
Argazkiak: Susa Argitaletxea

Historialaria da ikasketei dagokienez, azkeneko urteetan Nafarroako Gobernuarentzako euskara irakasle dabilen arren. Hala ere, idazle moduan ere aurkez daiteke Bergaran jaio baina aspaldi Iruñean bizi den Patxi Larrion. Donostiako Udal Liburutegian aurkeztu zuen atzo, eguna, *Feriatzaileak* (Susa) eleberria.

Titulua estreinatu berri duzu. Ez da idatzi dudan lehenengo gauza, baina, kasu honetan, nobela bat da, bai. Hala ere, ez dakit idazlearen izena merezi ote dudan. Ni, berez, irakaslea naiz.



Kontakizun bizia

• **Izenburua:** Feriatzaileak.
• **Argitaratzailea:** Susa (2016).
Zinegile amerikarrentzat lanean ari diren Martin eta Luis gazteak dira protagonistak. Jukutriak eta sekretuak, anbizioa eta traizioa, adiskidantza eta desira, bizitasun handiarekin azalduta.

Hainbat hiztegitan begiratuta, ez dugu aurkitu feriatzaile hitzaren esanahi garbirik.

Hitza definitzeko liburuak irakurri beharko zenukete. Kasu honetan lapurra da? Ba ez, ez da lapurra. Gauzak lortzen dituen pertsona bat ote da? Hori ere bada, bien arteko nahasketa bat da. Gaztelaraz, *rufián* edo *truhán* izan daitezke, adibidez.

1964ko udaberrian Urbanas grabatu zuten Patton filmaren errodailea dakarzu gogora.

Zergatik argumentu hori? Neurri baten egia da txikitatik nuela buruan. Gogoan dut Bergaratik gurasoen herrira joaten ginenean –Urbasa ondoko Etxabarrikoak dira–, Urbasa zeharkatu behar izaten genuela eta maiz tokatzen zitzaigula autoa geratu behar izatea, filmatzen zeudelako bertan. Izan zitekeen *Hiru mosketariak* edo *Cronwell* edo *Patton* filmatzen aritzea. Beraz, nik Urbasa eta zinea lotu egin izan ditut beti; eta mitifikatu ere bai, neurri batean. Hori, alde batetik; eta bestetik, duela urte batzuk, lagun batek *Patton* filmaren eta Francis Ford Coppola gidoilariaren inguruko informazio bitxia eman zidan; hain zuzen ere, filma errodutzen ari zirela, Iruñeko Maisonave hotelean zeudela filmeko aktoreak eta teknikariak, eta hotel hartako *barmanak* *Patton* izeneko koktela asmatu zuela. Iruditu zitzaidan nik kontatu gura nuen istoriorako abiapuntu ona zela. *Patton* koktelaren prestaketarekin hasten da, hain justu, nobela.

Bost urte besterik ez zenuen. Gogoratzen duzu errodaile hura?

Nire lehengusu batzuek hartu zuten parte; filmaren inguruan, baina, gehien gogoratzen dudana da osaba-izebek filma ikusi zutenean egindako komentarioak. Sakanako nire adineko lagun batzuk ere han ibili ziren. Horri buruz idazten ari nintzela kontatu nienean, batzuek gogoan zuten tankeen gainean ibili zirela... baina nik ez nuen horrelakorik ikusi.

Gertatutakoa da; baina egiazkoa da zure kontakizuna ere bai?

Filma aitzakia hartuta, hainbat amarruren eta feriatzailearen istorioak kontatu ditut. Agertzen diren elementu asko egiazkoak dira, baina kontakizuna fikzioa da.



Zazpi Oscar sari ditu

Francis Ford Coppolak idatzi zuen *Patton* filmaren gidoia, eta George S. Patton jeneralaren bizitzan oinarrituta dago. Franklin J. Schaffnerrek zuzendu zuen eta zazpi Oscar sari lortu zituen; tartean, film onenarena eta zuzendari onenarena.



“GEZUR SINESGARRI BAT KONTATZEKO DOKUMENTU ASKO AZTERTU DITUT”

“EZ DAKIT ESATEN ‘THRILLER’ BAT EDO ABENTURAZKOA DEN, DENETIK DU ETA”

Gezur sinesgarri bat kontatzeko liburu asko aztertu izan ditut.

Artxiboetan ibili zara, beraz. Hemeroteca asko erabili dut, bai; eta historia arloan dudan formazioak ere asko lagundu dit. **Zelakoa izan da idazte-prozesua?** Hainbat ohar harturik nituen eta baita dokumentazio lan bat egina ere. Ondoren, idazteko erabakia hartu nuenean, goizeko bostetan altxatu eta lanera joan aurretik idatzi nuen hiruzpalau hilabetez. Lana, familia... dela-eta ez nuen beste modurik egiteko.

Irakurle profil zehatzen bat zenuen buruan idazteko garaian?

Egia esan, ez; bizitasun handiko kontakizuna da, astebete batean hainbat gauza gertatzen dira. Iruditzen zait irakurtzeko samurra dela. Ez dakit esaten abenturazko nobela bat ote den edo *thriller*-a den, denetik dauka eta.

11 urterekin Iruñera joan zinen; hala ere, bergararra zarela diozu.

Bai, gurasoak nafarrak dira, baina Bergara joan ziren lanera, eta lau anai-arrebak Bergaran jaioak gara; Bidekurutzeta kalean bizi ginen. Geroago, sarritan joan izan naiz Pentekoste jaietara. Familia dut han; beraz, badut oraindik ere harremana Bergararekin.

Nafarroako Gobernuak langileen euskara irakasle zara. Barrutik begiratuta, nolakoa da Nafarroan euskararen egoera?

Galtza bete lan dugu oraindik. Larre motzekoa naiz ni eta ez dut goitik gauza handirik espero. Ezer aurreratu badugu, hainbat pauso txiki elkarrekin eman dugulako da, ez naiz ametsetan galduko ni. ■■■